

OLIVER BUTTON POXPOLIN BAT DA

Testua eta irudiak: TOMIE dePAOLA

Itzulpena: EVA LINAZASORO

Kartonen enkoadernatua. 21,6 x 27,8 cm. 48 pág. 15 €

LAURA INGALLS SARIA 2011 / IRA-CBC Children's Choice

Oliver Button poxpolin bat da (euskara)

ISBN 978-84-89172-133-8. Gaur egungo klasikoak.

Oliver Button es una nena (gaztelania)

ISBN 978-84-8464-197-1. Clásicos contemporáneos.

Oliver Button é unha nena (galegoa)

ISBN 978-84-8464-172-8. Tras os montes.

L'Oliver Button és una nena (katalana)

ISBN 978-84-16804-84-9. Clàssics contemporanis.

Oliver Button é uma menina (portuguesa)

ISBN 978-989-749-123-8. Clássicos contemporaneos.

Oliver Buttoni poxpolin deitzen zioten.

Ez zuen gogoko mutikoak jolasten ohi diren jolasetan ibiltzerik.

Aitzitik, basoan paseatzea


eta soka-saltoan ibiltzea gustatzen zitzaion.

Liburuak irakurtzea eta marraztea maite zuen...

Oliver ez da besteak bezalakoa: natura eta irakurtzea gustatzen zaio, paperezko panpinekin jolasten da, eta mozorrotzea maite du, kantuan aritzeko, eta, batez ere, dantzatzeko. Aitak, bere semeak kirolen bat egitea nahiko luke, baina ez denez betere abila ariketa fisikorako, eskolako beste haurrek bazter uzten dute, berataz trufatu eta iraindu ere egiten dute. Horren erakusgarri da eskolako horma batean margotu dutena: «Oliver Button poxpolin bat da».

Tomie de Paolak bere eskarmentutik beretik idatzi zuen ipuin hau; gutti aldatu dira gauzak 1979az geroztik. Gaur egungo gizartean, zoritxarrez, oraindik ere bizirik diraute, neska- mutikoak beraien gustu eta kanpoko itxuragatik bereizten dituzten estereotipo eta genero rolak, arau sozialetatik at kokatzen denari jazarpena egiten zaio.

Neska-mutiko askok beren burua isladatua ikusiko dute Oliverrengan: duen sentsibiltate artistikoan, bere nahiak betetzeko erakusten duen irmotasunean, besteen arbuio, intolerantzia eta ulergaitasuna gainditzeko egiten duen ahaleginean. Tomie dePaolaren lanak -kolore leunetako irudi figuratiboz osaturiko biñetak dituen- familia eta eskola alorretan jasotako laguntzaren garrantzia azpimarratzen du, Oliverrek bere autoestima indartu eta merezi duen errespetua eta zoriontasuna lortze aldera.



- **Gala:** bestelakotasunarekiko errespetua.
- **Zeln adinetarako:** 4 urtetik aurrera.
- **Alderdi azpimarragarriak:** genero rol eta estereotipoen aurka; eskola jazarpena; heziketa inklusiboa; garapen pertsonala; autoestimua; sentsibiltate artistikoa; dantza; zerikusia duten beste liburu batzuk: «[Distinta](#)», «[Tximeleta-belarriak](#)», «[Kandido eta bestek](#)».
- **Liburuaren aurrerapena:**
<https://issuu.com/kalandraka.com/docs/oliver-button-poxpolin-bat-da-eusk>

Tomie dePaola

(Estatu Batuak, 1934)

Brooklyngo Pratt Institutuan lortu zuen Arte Ederretako gradua, ondoren, Californian eta San Franciscon areagotu zuelarik heziketa akademikoa. Bi hamarkadetan zehar arte irakasle jardun zen hainbat eskolatan, harik eta, 70. hamarkada bukaeran, irakaskuntza utzi eta liburuak idatzi eta ilustratzeari ekin zion arte. Irudiztatzaile bezala egindako bere lehen lana 1965ekoa da; orduz geroztik 260 lanetik gora egin ditu haurrentzat. Jaso dituen sarien artean: Caldecott eta Newbery dominak, 1976 eta 2000 urteetan, Golden Kite 1983 eta 1987an, Jeremiah Ludington Memorial 2000ean, Children's Literature Legacy 2011n eta Hans Christian Andersen Sarirako Izendapena, 1990ean.

<https://www.tomie.com>



www.kalandraka.com

comunicacion@kalandraka.com

www.Pamiela.com

soltxate@pamiela.com